

Manuel Garate Urbistondo, apaiz baten semeak kontatutakoak

Askotan bezala, kamioz kamio pasean noala, hor egiten dut topo udazken arratsalde batez Manuel Garate jaunarekin. Geren diosalak egin; eguraldiarekiko legeak konplitu; eta izpidetu garenean, ditzosozko lanaren kontua iritxi da, eta:

— *Ik ez al dek periodikuan ere zeozertan jarduten?*
— *Baaa... noizbeinka biatzen dut uxkerin bat, biño deus gutxi.*

— *Nik eukitzeyat ba, kasu latz askua kontatzeko. Ni apaiz baten semia nauk, eta ama oraindik soltera zala Santa Agedan illa, ogeita zazpi urte besterik etzuala gaxua! Pozik jarriko nixkikek periodikuan nik pasatakuak eta nik ikusitakuak, jendiak jakin dezan...*

Amaren eta aitaren kontu hura, sarrerako laburpena baizik etzen izandu. Ondoren bere bizitza guztia kontatu zidan, eta egia esan, harritu eta zurituri utzi ninduen. Baina nik orduan kasetik ez izaki eskura, eta beste egun batean egoteko gelditu nintzen, esanez beste eragozpenik izaten ez bazen behintzat, aterako niola kontu hura periodikoan.

Ez nahi bezain agudo, baina halako batean joan nantzaio kaseta artuta bere etxera, eta baita haren pasadizo izugarri guztiak jaso ere. Nabari zuen gizonak, barrenak ustutzeko gogoak amorratzen zegoela; eta etzuela gainera inongo lotsik, hala ziren gauzak esateko; aldrebes, kontzientziaren karga lasaitzea beretzako ondra zela etsita zegoen; eta horretan ez zuen arrazoi faltarik. Honatx ba, luzamendutan ibili gabe, berak esandakoak:

PATZIKU PERURENA

«Nere aittonai, Zumaiko Sagarbide basarrin nagusi zeguan anaya ill zitzakon, brigadan lanian ai zala, harrobiko tirua saltuta. Orduan kanpua morroi izate zan nere aittona, eta deittu eiñ zioten, anaya il tzala, ta anayan lekura etortzeko Sagarbide-ra.

»Etorri zanian, ze in tzuan? Etxian alargun geratu zan koiñata bere iru seme alabakin etxetik kanpora bialdu, ta bera jarri jaun da jabe! Etxia etzitzakon koiñatai tokatzen, baña, semeai bai. Semiak baitzian Sagarbidekuak. Gure aittona ere angua zan, baña, anai zana zegon etxeko nagusi, eta anai zanan kargua illoban esku geratze zan.

»Gero, aren osabak auzitara jo, eta Itziarko Sagarbide basarria eskutik kendu ziguen guri dana. Nere amona zana berriz, Juana Urbistondo, ordurako Zumayan zeguan iñure, Estanislao Etxaberen semiari, Joxeri, petxua ematen. Bai, Joxe Etxabe, umia zala, gure amonan bularretik azittakua da.

▼
«**ETORRI ZANIAN,** ze in tzuan? Etxian alargun geratu zan koiñata bere iru seme alabakin etxetik kanpora bialdu, ta bera jarri jaun da jabe!»

»An zegoala, nere amon orrek esplikau zuan ze kasu zaukan, ta Zumayako Ota-lora basarria eiteko mendi troxo bat erosi zuen sei mila errialetan. Eta sei mila errial oyek oso osoikan Estanislao Etxabe orrek eman zixkoen. Baiña, diru arek ordaindu eiñ biar zuan, eta eziñ ordaindu. Familiyare aundiya, eta dirurik eziñ aurreatu iñola.

Handikan bost sei urtea, Don Tomas Arteaga, orduan Donostiko Antiguu Eleizan parrokoa zanak emanda pagatu zitzaizkon sei mila errial oyek Estanislao Etxaberi. Parroko aren etxian bait zeguan orduan gue izeba Iñaxi, ta aren bitartez eskuratu zian diru oyek.

»Gero, izeba Iñaxin bidez, Donostiko ultramarino batea jun zan neskame nere ama zana Joxepa, aizpa gazteagua. Ortako, apaiz ori zebillan tartian gidari. Zeatik? Ba, arke, beste danena: bere sei mila errialak ko-bratu nai zittualako. Nola ordia? Nere ama zana gaxua lazuan arrapatuz!
»— *Etxe orretan diru askokuak dia, ta mutill orrekin ezkondu zaitte. Ta ezezka asten bazaizu probokatu zazu* —esaten omen zion apaizak.

»Nere ama zana neskame zeguan Ultramarinoko nagusi ori, Manuel Maria Munarriz, naparra zan berez, Artajonakua; kerida zar batekin bizi zana; ta dendare arena omen zan; ta apaizak mutillana zala uste. Ala, neskamia, nere ama zana Joxepa, apaizak agindu bezala probokatzen

asi zitzakonian nausi orri, ze in dia? aixkiretu, ta alkarrekin tratuan asi. Baña, nausiak, garai artako, pentsa zazu, aurdun ez geatzeko emakumin pastillak ematen omen zizkan.

»Nere ama beartua zegon; Don Tomas apaiz orrekin konfesatzen zan, ta dana esate zion, nagusiak nola pastillak ematen zizkan, ta dana... Jakiña, apaizak dana kontrolatu biarra baitzakan.

»— *Baña, zurekin ibilli da? Pastillak eman bai, baña zurekin ibilli da?*

»— *Bai jauna, ibilli da bai!*
»— *a, pastillik etzaiozula geyo artu. Neuk jarriko zaitut aurdun. Ta geo bere aitzaki eingo deu. Ez lezake ukatu. Ukatzen asten bada, derrior beak deklarau biarra dauka pastillan kontuba; ta ori oso azio grabia da; kartzela sartze espauere, gaizki ibi-*



Bere etxera joan ginenean, bere ama zenari jarritako bertsoak kantatzen hasi zitzaigun Manuel Garate. Antxoa pote gaineko kartoietan zituen boligrafoz idatziak banan bana, eta denak txukuntxukun bilduak goma batekin.

CARLOS VILLAGRAN

llico da mutilla.

»Ala, apaizak pentsatu bezala, nere ama gaxua aurdun utzi zuanian, deitu zion ultramarinoko nagusi orri, ta dana esan omen zion berak planeatua zakan bezala:

▼
«**NERE AMA BEARTUA** zegon; Don Tomas apaiz orrekin konfesatzen zan, ta dana esate zion, nagusiak nola pastillak ematen zizkan, ta dana...»

Bere ama zenari hamasei bertso jarri zizkion Manuel Garatek. Horietatik hamabi aukeratu ditugu:

Bertso lanari ekin nai diot
Barrenak ustuxe arte.
Gordian neuzkan gauz illun abek
Miñ ematen baitiate.
Batere biyotzik dezutenak
Kupituko al zerate.
Ta entzun nai ez dutenak berriz
Belarrik itxi bitzate!

Ama maitea zu sortu ziñan
sufritutzeko mundura.
Errurik gabe pagatu zendun
Kondenatuen modura.
Nunbait etsayak utzi zintuan
Otso gaixtuen eskura:
Azkenerako or zenituan
Zoramén danak burura.

Gure aitona diru aldetik
Gaizki zebillen orduan.
Apaiz gazteak osatu zuan
Elizaren anparuan.
Orregatikan kutsutu ziran
Aragizko pekatuan:
Apezak berak tranpa eginda
Utzi zuan estaduan.

Etxeratzian aita makilka
Biali zuan aurrian,
Gero artatik burua galdu
Bere estutasunian.
Azkenerako bodegan sartu
Arrapatu zutenian.
Gordeta antxe euki zuten
Lurpian urte betian.

»— *Zure neskamia, nerekin konfesatzen da, ta dana aitortu dit. Aurdun dago gaxua. Ta lenbailen ezkontzia dezu onena. Nik ez diot iñori ezer esango.*

»Mutillak ez omen zion ukatu eindakorik ezerre. Apaiza ustez listua! Baiña bestiare ez izaki tontua! Ultramarinoa traspasuan eman; diruak eta kerida artu; eta ospa egin omen zuan Argentina! Santas paskuas! Antxe geatu omen zan nere ama gaxua, zerrua goyan eta lurra beran, iñoako etzala.

»Orduan, apaizak aindu zion nere ama zanai etxera biltzeko. Bildu zan etxera gaxua, ta egun berian amai esan zionian nola aurdun zeguan, aittak egurrakin artu aurrian da, etxetik kanpora atea omen zuan. Gaixuak, etxian aldamenian, meta baten onduan, nola ala bota omen zuan gaua.